

# Helburuak

## Kontzeptu zientifikoak

### Helburua #1

Gai zientifikoak eta teknikoak **aztertzea**, tokiko eta munduko bizi-baldintza pertsonaletan **eragina** izan eta gizartean **eztabaida publikoa** sortzen dutenak. Hori guztia kontzeptu, lege eta teoria batzuen **esanahi kualitatiboa** erabiliz egingo da, **ebidentzia zientifikoetan oinarritutako iritziak sortzeko**.

## Metodo zientifikoa

### Helburua #2

Ikerketa sinple batzuk **egitea**, eduki zientifikoa duten **informazioak aztertuz eta antolatuz**, bakarka edo taldean, **aburuak sortuz**, **hipotesiak adieraziz eta gogoetak eginez**, **interes zientifiko-soziala duten gaiei buruzko erabaki arrazoituak hartzeko**.

# Helburuak

## Helburua #3

Garapen pertsonala

Norberaren irizpideei jarraituz argudiatzea, eztabaidatzea eta ebaluatzea jakintza zientifikoa, gizartearentzat eta ingurumenarentzat garrantzizkoa den heinean. Hori guztia jarrera zientifikoak eta balio sozialak baliatuz egingo dute ikasleek, garapen pertsonala bideratzeko eta pertsonen arteko harremanak eta gizarteratzea hobetzeko.

## Helburua #4

Aspektu sozialak

Ideia zientifikoak etengabe eraikitzen direla, eta sortu diren testuinguru kulturalen, sozialen eta ekonomikoen eraginpean daudela onartzea, eta eztabaida zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioestea. Horren xedea izango da pentsamendu kritikoa lantzea, zientziaren alderdi kulturala balioesteko eta zientziak gizartean eta ingurumenean dituen eraginak balioesteko.

### Helburua #5

**Informazio zientifikoa egokitasunez interpretatzea eta adieraztea, hainbat euskarri eta baliabide erabiliz; besteak beste, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.** Interpretazio- eta adierazpen-saio horietan, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren gai zientifikoak eta teknologikoak jorratzea.

# Helburuak

## Laburpen-taulara

	Zer	Nola	Zertarako
<b>H1</b> Kontzeptu zientifikoak	<b>Z-T gaiak aztertu:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>•gai eraginkorrak</li><li>•gai eztabaidagarriak</li></ul>	Kontzeptu, lege eta teorien esanahi kualitatiboa erabili	ebidentzia zientifikoetan oinarritutako iritziak sortzeko
<b>H2</b> Metodo zientifikoa	Ikerketa simple batzuk egin	informazioak aztertu eta antolatuz, bakarka edo taldean, aburuak sortuz, hipotesiak adieraziz eta gogoetak eginez	erabaki arrazoituak hartzeko
<b>H3</b> Garapen pertsonala	Jakintza zientifikoa argudiatu, eztabaidatu eta ebaluatu	Jarrera zientifikoak eta balio sozialak baliatuz	garapen pertsonala, pertsonen arteko harremanak eta gizarteratzea hobetzeko
<b>H4</b> Zientziaren aspektu sozialak	<b>Idea zientifikoaren ezaugarriak ezagutu:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>•etengabe eraikitzen</li><li>•testuinguruaren eraginpean</li><li>•giza jakintzari ekarpenak</li></ul>		pentsamendu kritikoa lantzea, zientziaren alderdi kulturala eta eragina gizartean balioesteko
<b>H5</b> Komunikazioa	Informazio zientifikoa egokitasunez interpretatzea eta adieraztea	Hainbat euskarri eta baliabide erabiliz; besteak beste, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	